




AURTZAROAREN EZIERA TA AITA SANTUA

—♦—

II

(Jaraipena)



Eziera Elizaren eginkizuna.

ZIERA, guzien gañetik Elizari dagokio. Era oso berezian ala ere, bi zotz izatez-gañekoagatik (sobra-natural). Jaungoiko berak Ari ta Ari bakafik eman bai dizkio. Odeiaz beiko beste zotz guzien gañetik daude auk.

Era oso berezian.

Lenengo zotza, Elizaren Sortzaile, Jaungoiko berak, eman zion eginbide ta nagusitzatik datorkio: «Zeru-lufetan nagusitza osoa eman zait. Zoazte, ba, ta gizalde guziei erakutsi. Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatu. Nik erakutsi

dizueten guzia erakutsi zaiezue. Eta ona, ni zuekin nago egun guziz, mendeen bukaeraraño.» (1)

Eta Irakasgo (maixutza) oni Kristo G. J'k, berak irakatsia adierazteko aginduarekin batera, ezin uts-egina erantsi zion. Geroztik Eliza, beronen Sortzaile Jaungoikoak egiaren onafi ta abe egin du. Gizon guziei jainkozko sinispena erakusteko. Eta beraren eskuetan jafi du aren gordegia (gorde-ku-

(1) Matth. XXVIII-18-20.

txa), osorik eta nastu-eza zaindu dezan. Baita ere gizonei, beren alkartasunei eta egintzai bide eman eta argia eman dezaian, bai oitura itxura onekotan, baita ere biziera efugabea, goitik irakatsiaren ariora. (1)

Goitiko sorpurua.

Bigafen zotza Elizaren izatez goragoko sorpuruak ematen dio. Kristo G. J'ren ezkontide efugabe onek Jaungoikoaren grazizko bizitza bere Sakramentuz eta bere irakasgoaz sortzen du animetan. Agustik deunak ba-du ba, izpidea (afazioa) esateko: «Jaungoikoa Aitatzat eztu idukiko, Eliza Amatatzat iduki nai eztuenak.» (2)

Argatik bere azierazko eginbide berean, au da «Jaungoiko berak Eliza jainkozko erakuskide egin du, eta Jainkoaren ontasunez utsegin-eziña. Argatik gizonen irakasle (erakusle) ta guziz okerkaitza da; bere baitan ezafirik bai darama irakaspenetarako aukeraren eskubide ezin galdua.» (3)

Geroztik bere sorpuruan, baita ezierarako bere eginbide lanetan ere, lufeko agintari edozeñengandik askatua dago. Bere lanbide berezirako bakafik ez bañ, lanbide oiek betetzeko dagozkion edo bear ditun tartekoetarako ere bai.

Argatik, gizonen arteko beste edozein ezipide ta irakaspideri dagokionaz, (naiz ori berez gizon bakafen eta lagunarteen edo guzien seniparte izan) ala ere Elizak ezin kendu zaion eskubidea du berekin. Ta batez ere, kristau ezierari zenbateraño ona edo kaltea dakarkion erabakitzeko.

Eta ori, bai Elizak, lagunarte naikoadunak bezala, berari dagozkion bideak artu dezazkelako; baita ere irakaspidea gizonaren azken zorionarekin korapiaturik dagoalako; ta ori naita-naiez, ezin uratu den korapiloz, giza-arteke beste edozein egintza bezalaxe.

Jainkozko legearen esanetatik ez diteke baztartu geroztik. Oien zain-tzale, adierazle ta irakasle utsegin eziña Eliza da-ta.

Ori guzia Pio X-gn. (aipamen onekoak) itz argitsuz adierazten du: «Kristauak lufeko gauzetan, edozein egiten duela ere, zeruko ondasunak aldebat uztea eztu zilegi. Oso beste aldera, kristau jakinduriaren ariora, bere gauza guziak azken zorionerako, azken meta bururako bezela zuzendu bear ditu. Gañera bere egintza guziak Elizaren erabakintza ta eskupekoak dira, naiz izan oituretarako onak edo txafak, naiz izan izatezko edo jaizkozko legeen ariora egiñak edo ez.» (4)

Eta katolikoak onafitako daukagun egi au, eliz-gizon ez dan batek, zein ondo aditu ta adierazi dun, oartzekoa da. Idazle afigafi bezin asmatzale su-traitsu eta jakintsu onek dio: «Zil dana (ezagutzea) Elizari uts-utsik (bakafik esan nai da) dagokionik, Elizak eztu esaten; baizik osotara (ezagutzea) berari dagokiola. Bere magaletik aruntza edo berak erakutsi gabe, gizonak zil dan zer bait ezagutu ez dezakenik eztu esan nai izan; geiago dana, bein ba-ño geiagotan uste ori ezetsi egin du. Beti esan dun eta esango dun bezala,

(1) Pius IX.

(2) De symbolo ad catecho XIII.

(3) Ep. enc. Libertas, 20 iunii, 1888.

(4) Ep. enc. «Singulari quadam», 34 sept. 1912.

egiaz dio: zilegi dan guztiaren egi osoa, berak bakafik daukala; Jesu Kristok eman dion soferaz, Aitak aren izenean bialdu dion Espiritu Santuaz, sortzez eta ezin galdu dun eran. Gizonak, naiz bere ezagura utsaren bidez, zil dirala ezagututakoak; naiz goitargialdiz ezagututakoak, edo baita ere oieta-
tik ateratako egiak, ontan sartzen dira. (1)



Elizaren eskubideen zabaltasuna.

Onela, ba, kristau ezierarako, beafezko edo on diran ikaspide, jakinketa ta ertiak, Elizak, eskubide oso-osoaz ugaritzen ditu. Baita animak zerurtzeko lanbidean, dagozkion ikastetxeak, ezitetxe, bizibide ta ikas-mala guzietakoak sortu ta senpertzeko alegiñak egin ere. (2)

Eta soñeko eziera deritzaion ori ere, Elizaren ama antzeko Irakasgotik alde dagona bezala eztiteke artu. Kristau ezierarako lagundu edo kalte egin bai dezake ba.

Elizak edozein ikaspidetarako egiten dun lanbidea, sendi famili ta efi-
dien muga gabeko onerako da. Jesu Kristo gabe galdu egiten bai dira Ilario
deunak dionez: «Gizaldearentzat zer afiskutsugorik Kristo Gure Jauna ez
artzea baño?» (3)

Jesus zorionak adierazten.

Onela efietako bizipiderako eztu ezeren eragozpenik jartzen. Elizak,
amaren antzeko arduraz, efi-alde bakoitzeko agintarien legezko aginduetara

(1) A. Manzoni.

(2) Codex Iuris Can C. 1375.

(3) Comment. in Matth. cap. 18.

jartzea ez bai du galaratzen. Eta edozein garaiez gertu bai dago, arekin batera jartzeko ta sortu litezken zailtasunak adiskidetasunean erabakitzekeo.

Gañera bere ume siñistunen (fededunen) ezieraz esnai erne egotea, Elizaren eskubide ezin aldatua, ta eginbide ezin utzi duena bai da. Eta ori edozein ezitetxe bakafen edo alkartuenetan.

Erlijoari dagokion irakaspenetan ez baño, beste edozein ezipide ta agindu erlijioaren ziltasunari dagokionetan. (1)

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

GURE BURU NAGUSIA



AUZA afigafi bat agertu zan zeruan: andre bat eguzkiz jantzia, ilargia bere oñazpian eta buruan amabi izafezko burestun edo koroia: aurdun egon-ta deadar egiten zuan.»

Gauza afigafi ori, emen aitatzen dan emakumea Ama Birginiaren antza ezezik, Elizaren irudia da. Eguzkia, Eliza edertu ta onen bitartez mundu guztiari argi egiten dion Jesukristo gure Jauna da.

Oñazpian ilargia eukitzeak munduko gora-beretan garaile ateratzen dala adierazten du.

Bere buruan amabi izar ditu bere aunditasun eta agintea amabi Apostoluengandik datorkiola adierazteko.

Aurmindun dago neke aundien bidez, ziñopa edo martirien bidez efi befi bat, kristaua sortzea beafezkoa dalako; efi onek mundu guztira zabaldu bear du ta bere sinismen eta legeen mendeen mundu guzia jartzen saiatu bear du.

Egiatzki Jon (Jaun) doneak ikusi zuana Elizaren asieran gertatu zan. Begira bestela Esteban len-martiriari ta afien ukaldi edo kolpeen indafez bizia Jesukristo gure Jaunagatik galtzen du.

Begira Apostoluai, bat ez besteak, bere Erakusle edo Maisuarengatik neke izugafien artean bizia galtzen dute.

Begira Elizaren lenengo garaia, orduko kristauen odola ugari ateratzen da kristauen zafetik.

Aurmiñak, eta gogofak zituan Elizak kristau-efia sortzeko, ordu-ezkerokoak ere izugafiak izan dira, aldi askotan ikusten degu kristauen odola ibaika ixuri dala.

(1) Cod. I. C. cc. 1381, 1382.

Elizaren bizia geldi gabeko bufuka da: kristau odola ugari Jesukristo gure Jaunagatik ixuriaz, kristauak ugaritu egin dira.

Bidez esan zuan Tertuliano'k: kristauen odola, azia zala.

Nola ote diteke au?

Agerpen edo Apokalipsis liburu donean irakurtzen degu: «Zeruan bufuka aundia bat izan zan: Mikel (Migel) eta aingeruak sugetzafarekin bufuka egiten zuten, sugetzafak eta bere aingeruak ere bufuka egiten zuten: auek etzuten garaitu eta etzan zeruan beretzat lekuri gelditu.»

Holzhauser'ek dionez kristau-erlijioa Europa'n sartzean Mikel (Migel) eta bere aingeruak egiñaletan Elizari lagundu zioten eta erensuge edo deabruak befiz Elizaren aurka al zutena egin zuten. Mikel goi-aingerua Elizaren alde lan egiten dutenen Buru da: bere mendeko aingeruak elizak eta efiak gordetzen dituzte.

Gaurko egunean ere bufukan ari dira deabruak Euskalefian. Kristauak bereizteko egiñalak egiten ari dirala dirudi.

Berezi ta garaituko degu esan du nonbait deabruak, eta katolikoak len ain baturik geunden afen, orain nolako bufukan ari geran.

Katolikoak katolikoakin bufukan eta nolako izkili edo armakin!

Irañik aundienak lagunurkoari egiten!

Ziñez badabil erensugea bereakin Euskalefia ondatu naiean. Jaso ditzagun begiak Aralar'era. Aspalditik uste danez, mendi ofetan Goñi'ko Todosi (Teodosio) santua Mikel Goi-aingeruak erensugeagandik gorde zuan. Aralar'eko mendi gañetik Euskalefia zaitzen ari dala ikusia daukagu askotan.

Zuzendu itzagun aruntz gure begiak.

Gure Burutzat artu dezagun. Bere irudiak buru-gañean daukan gurutzearen itzalean bildu geitezen euskaldun danak.

Gurutzearen babesean eztago lekuri gogotoarentzat.

Egiatzko katolikoak alkafenganako goi-maitetasun edo karidean ezagutzen dira.

Utzi ditzagun ba gogotoak, maite ditzagun gure anai guztiak onak eta txafak.

Au irixteko, Euskalefiko katolikoen batasuna iristeko gure Zaindari edo Patroi Mikel (Migel) goi-aingeru aundiari egunero otoitz txiki bat biotzez egin dezaiogun.

Batasun au irixten ba'degu goiz edo berandu gure Diputazio eta Efiko Etxeetan Katolikoak nagusi izango dira ta gure Efiari emendik on aundia etofiko zaio, neurtu eziñeko ona. Baño garaiz ez da'gera batutzen...

Mikel goi-aingerua, afen gutzaz oroitu, emen eta alde guztietan gure Jainkoaren Semeari otoitz egiozul!

A.



UZKURTZA edo ERLIJIOA

(Kristau-Ikasbide guztia ikasi duten gaztetxoentzat)

Gauza samina da Kristau Ikasbide-erakuslearentzat, umetxo-adimena (entendimientua) zerbait argitzen asten dan garaian, Kristau-Ikasbidea utzik, etxera iges egiten dutela ikustea. Beste alde askotan egiten dan bezela, beahezkoa da gaztetxoak Uzkurtza edo Erljioa oraindano baio obeto ezagutzea: ez dute ikasiko erakusten ezpazea.

Nik lan onetan zerbait lagundu naiez lantxo oneri ekiten diot. Nere lan onek aundiai ere on zerbait egingo dielakoan nago.

JAUNGOIKOA

Sinisten det Aita Jaungoiko alguztidun, zeru-luren egilea.

Jaungoikoa ba-da

Au adierazten digu gure adimen edo afazoiak.

Orduari edo erlojua (Munduko era edo ordena).—Orduari edo erlojua ikustean berezko gauza irudi zaigu orduariak egile bat izatea: orduaria inork ere egin eztuela esango ba'ligute ez genduke inola ere sinistuko.

Zergatik?

Orduari edo erlojuan zati asko ikusten ditugu zer ordu dan guri adierazteko eran, moduan, jafiak: ofatzak, zenbakiak leiar edo kristala, txifinga edo gupila eta: danak ordua ondo adierazteko egoki jafiak daude.

Gauzak zerbaiterako egoki jartzeari era edo ordena *deitzen zaio*.

Gauzak zerbaiterako egoki jartzeko, nola jafi bear diran *jakin* bear da eta jartzeko *indara* bear da.

Orduari edo erlojuan ikusten degun era edo ordena munduan ere ageri da.

Izarak alkafi trabarik egin gabe, bere bidetik ibiltzeko egoki jafiak daude.

Eguzkia lufari argi egin ta *ere* gabe berotzeko bear dan lekuan jafia dago.

Begiak ikusteko egoki jafiak dauzkagu; gure *onak* ibiltzeko; gure *beatzetako puxkak* gauzak artzeko; gure ortzak jatekoa txetzeko, gure *mia* itz egiteko.

Ba-dago ba, izafak erloju edo orduari baten antzera ibiltzeko era egokian jafi dituan bat. Orduaria edo erlojua egiteko egiten dakin eta ofetarako bear dan indafa daukan bat izatea beahezkoa da.

Mundua egiteko ta gure gorputza egiteko askoz jakinduri ta indar geiago bear da: ofegatik nai ta naiez mundua ta gu egin gaituan bat ba-dala aitortu bear. Oneri Jaungoikoa deitzen diogu.

Arautza ta oloa (Bizidunak).—Bein batean uri aundian bere ikasketak egin-ta ikasle bat etxera itzuli zan.

Afeba batek Jaungoikoaren izena aitatu egin zuan: anaiak aditu zuane-ko, berari Jaungoikorik etzala esan zion. Onek, uri aundietan gauza aundirik ikasi ez izan afen ederki estutu zuan anaia. Galdetu zion zein zan lenbikiko, oloa ala afautza. Anaiak, estuturik, batzuetan oloa ta bestetan afautza esaten zuan, Jainkoak lenengo afautza edo oloa egin zuala ez aitortzeagatik. Afebak esan zion lenengo oloa edo afautza Jainkoak egin zuala eta oloen jatofia efaz azaldu edo esplikatzen dala.

Bizidunak noizkoak dira? Lenbizian etzan bizidunik: lufa izar baten antzera suz inguratua zegoanean, 2.000 mala edo gradoko berotasuna zan lufean.

Bizidunik txikienak, soin-kizkin edo zelula batekoak, dira: auek ere bi-



ONDAĖABI'N—Guadalupen eta Kaputxinotan A. Birjiñari bersoak esan zizkioten Aur Kordoidunak.

zitzeko 200 mala edo grado baño gutxiagoko berotasuna bear dute: aundia-gokoakin ez ditezke bizi: ofegatik lenbizian etzan bizidunik lufean.

Bizidunik eztala lufetik sortzen argi jafi zuan Pasteur jakintsuak.

Ofegatik lenengo bizidunari au baño lenagoko bizidun batek bizia eman ziola aitortu bear. Bizi-emaleari Jaungoikoa deitzen diogu.

Sasia sutan (Jaungoikoak itz egin du).

Mois (Moises) ardi zai mendian zegoan. Ta ara non ikusten duan sasi bat sutan, baño efe gabe. Ariturik ba-dijua sasi aldera obeto ikusteko us-tean ta andik ateratzen zan dei au entzun zuan: «Moises, Moises! Ez onera-go etofi, oñustu zaite, zure oinpeko lufa donea da-ta.»

Ni zure aitaren jaungoikoa, Abrahan'en Jaungoikoa, Ixaka'n (Isa-ak'en) Jaungoikoa naiz.

Au entzun-ta Mois'ek (Moisesek) arpegia estali zuan, ezpaizan Jaun-goikoari begiratzen ausartzen. (Exod. III, 1-7).

Arbelaitz, O. M. Cap.

Eriotza on bat

Goizuetan bildua

ELDUAYEN A.

E - ri-o-tza on-bat, Jauna e-man bekit

be-re eri-o-tza o - - - na-ga-tik Ma - ri - a gra - zi - a - ren A - mak

mi-se-ri-kor-di - - az be - terik geren azke-ne - ko ordu artan

li-bra gaitzala e - tsai-a-gandik A - men Je - - sus

LORAMENDI SARITUA

«Euskaltzale»n alkartasunak aurtan egin dun Olerti-jaiean gure Loramendik irabazi du lenengo saria. Au baita Bedoñar Joakin Abagai, Kaputxinoa.

Ementxe dezute gure irakurleok, berari eman zaio sari eder baño edefagoaren argazkia. Aritzaren adartxo polit-polita. Lañu nabarmen eta ikusgarrian josirik dago.

Aritz adar oñek ogei ta lau zentimetro ba-ditu luzean, or ain txikitxo eman ahen. Zilar erdoiztatuz egiña da. Adartxo ori bere ezkur eta guzti ain egokia da! Sari bikaña, aurtan «Euskaltzaleak» lenengo saritako eman dutena.

Gure biotz-biotzezko zorionak olerkari gaztetxo ofi. Eta «Euskaltzale»ai ere bai, onelako jai bikañaz, euskeraren zaletasuna gure gazteriaran biotzetan, urtetik urtera geiago sustatzen ari dalako.

Aurtengo Ostabeltxak (sariak), bat ezpada gañerakoak, elizgizonak eraman dituztela entzun degu. Eta poztu egiten gera. Ortan ageri baita, lanean ixilka nortsu ari diran geienik. Saridun guzti-ei gure zorionak!

Gure arpidun guztiak saritutako olerkia pozik irakuriko dezutelakoan, ementxe jaritzen dizugu, bere egileak eman digun eran.



III'gn. Euskal-olerti Jala. Ernani 1932'ko Dagonilaren 7'an.

III'GAREN OLERTI EGUNEAN SARITUTAKO

BARUNTZA-LEYO

MAITE-KANTA

Dilectus meus mihi, et ego illi, qui pascitur inter lilia (Cant)

Eme maitea neretzako, ta ni arentzako. Onek jana lili tartean

Loak ar bitza, loak ar bitza gudozte-kantak
dunbots zakafak, beude guardanik ixilean....
Zarata orde, otsera bitez, biotz ormetan,
lelo xamufak, argiz ez ezik, gau beltzean.

Erna bekio zugaitz il oni kima beria:
loretu bedi maite oparen gar zurira
ta itzal goxoan aterpeturik, josiko ditut,
adi sutsuak ori ta loren intzirira.

Nora noake, maitasun eske, neregán baitet
edefik oro berezko ditun maitalea?

Nola nabilke, argi-zaletsu, bafnen baitigart
sukar miazka, kixkaltzen nauen su-labea?..

Oraindañoko ene begien lauso goría!
Bafen etxeko axolage ta lo-zofoa!
Irten-saftuka, joran-izerdi, jarduki-eta
nabari ez nik, ate zai zegon usotxoal..

Izpi zofozki, geziko al nau maitale ofek!
Lertuko al dit griña makufen gaitz-burua!
Maite-gelako ardantegian estu loturik,
moxkor nazala, natzaion gaurtik zoratua!

Uxa ditzala, oroitzá zear digarozkidan
ekaitz-laño ta elur aufeko bekaizketak.
Ta ipar mearen ega zurira joko dizkiot,
amets goñitan, ernemin dauden maitaketak.

Badantzuizkiot, ixil bederen, bafun-bafunki....
bere mintzaren zur-mufu leun ta eresiak...

Ta aspaldi ontan laño-narakar nola ixuriko,
zor dizkidan asperen-tanta bioztiak...

Bil nadin noizpait, ero galanta au, bafen ontara.
nagon gelditxo biotz-leyoan tinkatuki,
maite piñ-piñak daragitála jo ditzaiodan
espa biguin ta leya zorotzak txinpartari...

Maite-aroan..... lur-maite-miñak gafatx ninduten;
ez jan ez edan, arat-onata narabilten.

Biotz-kondoan kabitu ziran z
garai obeko azi gazteak il zituz

Larutu zidan bafen zugaitza
pipi-gorñak jan zizkioten kima

Ta azala zear bidetu ziran tx
bana-banaka moztu zituzten g

Migura baizik etzan agen ad
beso zaintsuak, ezur iduri, sut
Ta ilundi-loan lasaiki zetzan m
begiz jo zitun bere sustraial ka

Beingo batean ate-danbada e
ta atera nintzan, giltza eskuan,

Ta idekitzean... ura bai zala
Ondasun oro eskeñi zidan biot

«Sar zaitez, bada, erantzun n
ortxen zaudeke zure gogore na

Ta au entzutean zuzendu zid
ene! neregán ikusi nuen loh-osi

Afetzkeroztik ene aularen se
Afetzkeroztik bafen etxeko poz

Naiz laño egon, zeru ta lañak
enegan beti euzki-urfa dirdai-o

Zabaldú zaizkit noizbaitekoa
noizbaitekoan upatu bai det ma
Ta ikuste uts-utsez, bereixto b
bertantxe nuke zorigaitzaren za

Beranduegi ail zoritxafez, ez
beranduegi ate-jokara naiz part

Egunik-egun biotz-atean noiz
ta itxu beltz onek muzin gaitzo

Oraingo nere zentzu galduen
oraingo nere begi lausoeni kus

Lengo edefa narda dakuste: r
emen litezken eder oroen turia

AKO OLERKIA YOAN

(Cant. II-16)

tartean du.

u ziran zale mifiñiak
k il zituzten.

ugaitza eguzki-ekaz;
ten kimatxoak...

ziran txinguri beltzak
tuzten goiko ostoak.

ageri adar ertzetan:

duri, sutarako.

etzan muxar gaixtoak,
traiak kabitako.

anbada entzun deritzat

eskuan, an nor ote...

bai zela maixtar bakoitzal..

dan biotz-orde...

antun nion gela ontara...

ogore nai adiña.»

endu zidan argi-zifara,
n lo-osiña!

aren sendotasuna!

teko poz ta atsegin!..

ta lak enegan beti
dirdai-oztin!

maitekoan biotz-begiak

i det maitalea.

reixko balitz etxe ontatik,
zaren zasztadea.

ahez, ezagutu det:

gaiz partu...

ean moiz idekiko,

gaiztoan, ai! giltzatu!

galduen itzafi ona!

enikusia!

akuste: narda, ordea,

en itusia...

Emen dagokit, emen dagokit ene maitea,
biotzak baitu sumatzen bere agerpena.

Zai dagokio, pozaren mende, noiz elduko-ote
zentzu guzien zorabio ta zoramena.

Auxe biotzen egon luze ta pilpil berdiña!

Auxe ixilaren adigarizko jardun goxo!

Arantzak sartzen balizkit ere, nere biotzak
ezten zulotik zorun befia gaur artuko.

Igortzi-leunka euslari dauzkat bere besoak;
bere niniak ene begien ur xipilu.

Ta argi-jarioz dagizkidaken mintzo eztiak.
esker beñi ta biotz-jantzien edergailu.

Arnasa batek darabil gure bular-auspoa:
taupari berak biotz-unea pilpiratzen.

Ta udalen lorak eguratsera liraken eran,
maite-lafosa muxuan zaigu gofixtatzen.

Maitasun izpiz urtuki dago nere gogoa;
zenbat jaramon, ainbat biotza goriago.

Ta argi-dirdaiak lilura duan txofiñoa lez,
galda zuritan eguzki ori begi nago.

Mintzari baitet... mintza ni ere; ta ixil banendi
laister lekarkit biotz-taupadak erantzuna.

Ta izpi-malutak joa bai nintzan, ernaratzen dit
bañun-mamiko xamur-jarien leuntasuna...

Ta afeta luzez belafi nago bere mintzora,
ziñez dalako ezta bere jardunean.

Ta aize biguñak daragioten afosa bik lez
amets dagigu buruak gurka laztanean.

Ta ipar beltzera lore-pitxia bafuntzen dan lez
gure gogoa, ekin gaiztora, ximurtzen da.

Ta alkafi eutsiz, bafuti ontan indartsu gera
oro ta txistu gain dan tartean gaitz-egada.

Nere bizia ezta nerea, berea baño;

Bera ordean nigan bizi zait bat egiñik.

Ta intxaur adafak, ez oi duten lez esnerik gabe,
nerez ez dakart jan-gai liraken zitu onik.

Bañan neretzaz ezin detana, Maite onekin
naya dan beste une batean egiña da.

Oro dezaket beronekin bat: bañan au ezik
bertatik nuke gaitzik latzenen zapañada.

Maite dut, maite... maite egaztiak egadak aiña
maite... ilargiak kuku-igaria gauan beste...

Maite nau, maite... maite dirdaiak ispilua lez
maite... edertiak ume xaloak bezelaxe.



Ta argi-txintara elur-tantoak lerorzken eran,
afaka darortz eguzkitara biotz-miñak.

Ta izpi-ufoak damaien bidez loretzen dira
aspaldi zurbil zirauten adar-kukuliñak.

Itxu-birari aterea da xaguxar beltza,
euzki-zeñendak txoko iluna tink orduko.

Ta armiarmaren dantza-sareak dilindan dagerz
itur-ariak euzki-ixlan baño diztiago.

Ufe ta lore dirdari dago bafen-etxea;
izar-jantzirik zutirik daude onbideak.

Ta agur-ereska makurtzen dira maite-aufean
gaurdaño ezin legozken zentzun gaizkileak.

Bizi beria txerta dit nere odol-zañetan:
ote ta arantzak lafoza zuriz pinpifinpin:

Ta arkoskopera labain zegion goi-esker-ura,
orain zugaitza muxuka ari da leyar-oztin.

Ixil nadin da... bertan dantzuzkit, afoza tarte,
ufetxindofen xinta kixkur ta oroimenak.

Ta berartantxen izpi-bustika, egati dauden
goi-uxotxoan papar-aleko asperenak.

Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta,
ene gogoak ikusi baitu aldaketa!..

Gela ontara ene maitea sar ezkeroztik
biotz-ezufak bai dute naiko loraketa.

Etofia zait beronekintxe ondasun oro;
beretzko ditu asma litezken on-ituri...

Ta udabefiak azi gazteai demaizkien lez
ene gogora esker-euriak dixurizki.

Ez al dit iñoiz iges egingo maitale onek!
Ez al dut ai! nik etxe ontatik baztertuko!

Maite-aduak egingo al du, gu izan gaitezen
bera neretzat ta ni osoro, beretzako!

Urtu dezala geroz geiago biotz-lausoa:
zabaldu bekit ezaguraren nini-izafa...

Ta alkar-izpien beroaz laixter ufe-kuskuak
auts-antz nituzke urin-malutan paña-paña.

Iñoiz ez al dit nagiak joko bafen karnaba
ez al du utziko asita dagon xinta mea;

Egunik-egun aituko al zait maite-leloan,
gozatu dedin irakas dion maitalea.

Ta abesti ofen oyarzunera pizkor genuzke
maite-eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo

Ta afatsaldeak, izpi-euritan, lekarzkiguke
maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo.

BEDOÑA'TAR JOAKIN AN.

O. M. Cap.



JAUNGOIKOA GURE ALDE



merikar agintari batek (Gobernadorea zan) Alemandar Kaputxinoak etzituen Guamen iduki nai, bere gogokoak etzirialako... Atse-gingafia zan kristauen artean egiten zuten lana, eta ofengatik begietan artu zituen eta etzion onik ere egiten Mixiolariak ikusteak. Protestantea zan Agin-tari ura.

Alako batean bera bezelako lagun batzuek bildu eta adierazi zien bere asmoa... Danak laguntza emango ziotela ta Alemandar Kaputxinoak Guandik botatzea erakabi zuten.

Artarako mila aitzaki eta esa-mesa franko asmatu eta zuzen zuzen Aita Sanduarengana jo zuten. Alemandar Kaputxinoak Guamen geyago irauten ba zuten kristau sinismena galtzera zijoala eta Guam'dar guztiak agitz laster protestante egingo zirala eta beste ofelako naiko gezur atera eta nolapait ere erdietsi zuten Alemandar Mixiolariak (ain onak eta langiliak eta bikai-niak izan afen) Guamdik ateraazte...

Pakeari begiratzuz Aita Sanduak agindu zien Mixiolariei uzteko Misoi au eta Mixiolariak Aita Sanduaren gogoa ikusi bezain laster, joateko pres-tatu ziran... Bai eta joan ere gaixoak...

Aiek aterazai (obeki esateko) indafez beartu eta gezurfa gezufaren ga-ñean zabalduz bota zituztenian, Gobernadoreak atsa artu zuen, eta Guam guztia Protestante lau egunez egiñik ikusteko asmoetan zebilen: berari la-guntza eman ziotenak ere atsegin aundia artu zuten...

Bañan gutxi iraun zien poz arek...

Bost bat ilabete gero Agintari arek bear etzan zerbait egin zuen: Mi-xiolarien aurka laguntza eman ziotenak berak Gobernuaren aufean salatu

zutèn, eta berealaxen Washingtondik deitu zuten Guamgo buruzpidearen kon-
tuak emateko eta bere eginkizunak garbitzeko. Joan ba zan joan, etzan ge-
yago itzuli... Eta Agintaritza kendu zioten... Eta bere burua galdu zuen...

Gertaera artan Guamgo jendeak berealaxen ikusi zuen Jaungoikoaren eskua...

Gure Aita onak, zioten, ostikoka bota zituen bai, bañan azkar atera da beren alde Jaungoikoa... Gañera Jaunak bere eskutik utzi eta gaixtakeri aundi bat egin du eta lotsaz beterik joan da Mixiolarien etsaia...

Aiton zar on-on batek maiz kontatzen zuen gazteen artean gertaera au, eta azkenean onelaxen itz egiten zien: «Nere txikiak ni zafa naiz eta gauz asko ikusi ditut... Utzi pakean Eliz Gizonak. Mixiolariak Jaungoikoaren gizonak dira eta Jaungoikoa beti oien alde ateratzen da...»

Agur egin beti, Eliz gizonei, nere lagunik oberenak oiek izan diralako, eta oiek Jaungoikoarengana eraman bear gaituztelako... Ez ikutu bada Jaungoikoaren Gizonak...»

Nere Euskaldun maiteak: entzun, entzun zuek ere, eta gogoan artu, eta ikusi Guamgo kristau zafaren itzak. Jakin zuek ere Eliz gizonak Joungei-



Guam'go alde polita.—Egi ortatik ugarte gelena agertzen da.

koaren gizonak dirala. Jaungoikoak beretzako autatu ditu eta oiek ikutzea Jaungoikoa bere begiko ninietan ikutzea da. Etzaitezela lotsatu bein ere Eliz gizonaren lagun onak izaten; Eliz Gizonak bakafik zeruko atia zuen animari idiki dezakioke ta...

Arayozko Artzayari.

Guam'go Misiolaria

Txengyuen'etik, 1932-VI-6 ean

*Ondarabiko Irugarandafai
Pakea ta zoriona guzioi!*



Nere biotz-biotzekoak:

azpi ilabete badira zuen artetik atera nintzala. Azkar joan zaizkit eta deus asko egin gabe: zuengandik gero ta ufutiago alde egin besterik ez noski... Oraintxe bai egiaz alkafengandik ufuti gaudela... ogei mila kilometro baño geiago!... Tokitan gaude alkafekin asafetuta, alkar joka asteko!..

Baño zeñek bota nau ni zuengandik ofen ufutiraño? Badirudi asafe ta gofoto-miñez alkar eziñ ikusirik, befiz beñ ere alkar ez ikusteko tokian izkutatu arte, pakerik etzi-

gula biotzak ematen!.. Ala ote?.. Bai zera!.. Ori sinistuko dunik ez ta noski inñor Ondarabi guzian.

Ez, gure biotzak ez dira alkafengandik sakabanatuak. Gorputzak ofen ufuti, baño biotzak len bezin alde... aldego ez ote orandik?... Gorputzak ufutira, biotzak otzgirora?.. Ezta orixe nerearekin beintzat gertatu... Ufutiratzekin otziñ ezezik, zuenganako zaletasuna beroagotu egin zait eta... Bildufez ere ba negon pixka bat biotza ez ote neukan ofera geiegi lotua!.. Baño ez jainkoarekiko alkar-maitasuna ezta beñ ere geiegizkoa izango.

Ofegatik Jaungoikoa bera etofi zaidala iruditzen zait egun oietan neri bildur ori kentzera. Berak jafi nau egun oietan nere biotza zuenakin estuago lotzeko bidean. Nik eztet beintzat aukeratu. Nere gogoari batere begiratu gabe, nere Nagusiak egindako lana da òri, ta beraren bitartez Jaungoikoak berak noski.

Ara: ez nuan asko uste zuen artetik atera nintzanean, befiz ere emen lanerako *zuen erian* erori bear nula!.. Alaxe erori naiz ba, *zuen erira*, zuek emen zuentzat artuta daukazuten efira, *Txengyuen* deritzaion efira. Onera etortzen dira zuek or gare konbentuko eliz-kutxa ortan botatzen dituzute *sosak*, ementxe bai dago zuen besoetako seme *Yure'tar Julian A.* au dezute bere mixio lanetan laguntzeko zuen semetzat bezelaxe artua: zuek bere *paidiak*... Ni befiz orain bere mofoi jafi naiz, bere mendea, bera da nere nagusi, berak jatten nau, berak jaten ematen dit... Nundik?... *Zuen bizkar-etik*... zuei or pixka banaka onerako eskutik ehortzen zaizkizuen *sosetatik*.

Baño ez: nik ezdet emen zuen baimenik gabe sasikumea bezela sartu nai zuen *sosak* jatera... Zuei iruditzen baldin bazaizue aski dezutela Julian

A. jasotzearekin, jafi garbi-garbi Zeruko Argia'n edo zuek ematen dituzuten sosak arentzat bakafik izatea nai dezutela... nik orduan beste aldera joko det nere *paidiaren*, bila... Nunbait aterako al zait!.. Bat, bi, iru efi ta geiago ere ateratzen bazaizkit nere *paidiak* izan nai dutela ta, danai ere naiko lan emango diet nik noski... Nik asko bear det gero!.. Nik asko sartzen det gero!.. Nun sartzen dedan, gero ez da asko ageri baño... ni or bezelaxe emen ere beti *engañamundos* noski!..

Ez naiz befiketan ari, ez. Begira ondo zuen otoitzak eta zuen sosak eta geiago ere ez ote dagon emen nun sartua.

Julian A., Konrado An. ta nik iruon artean *Txengyuen* efiaren izenpean daukagun bafutia, gure Probintzi ori guzia baño askoz geiago da zabalean: dana menditsua, menditartez betea, mendi sakon izugafiak; mendigañetan zelai edefak daude bai; arkaitzik gutxi; mendi alboak lur-zuloz beteak; lur-zuloietan kuiak edo satofak bezelaxe bizi da emengo jendea.

Egin zazue kontu Probintzi ortan kristauik ez dagola oraindik, elizarik ere ez. Alako egun batean sartzen zaizkizue Tolasan bi gizon, atzefitafak, zuen izkuntza batere ez dakitenak, Probintzi guzia zerubideratzeko asmotan. Eman zazue bi gizon oiek Julian A. ta ni gerala...

Tolosatik bakafik ezin degu Probintzi guzia ondo artu ta lana obetogo egiteko bost efi aukeratzen ditugu: Donosti, Tolosa, Zumafaga, Azpeiti, Eibar. Efi oietatik egingo ditugu ingurutako efietara geon atera aldiak. Efi bakoitzean egin nai degu Eliza, geontzako etxetxo bat, eskola bat, umezurtzak jasotzeko bi etxe: bat mutilentzat, bestea nexkantzat; kristau izan nai dutela ta biltzen zaizkigunak, bataioa artu baño len kristau-dotriña ikasten gutxienez iru ilabete egon bear dute: oientzako ere bada bost efi oietako bakoitzean beste bi etxe jaso beafean arkitzen gera: bata gizonezkoentzat, bestea emakumezkoentzat.

Au da Julian A'k eta nik biok Txengyuen alde ontan aufen-aufena egin nai gendukena... Baño auxe lana!.. sakelean *sos bat* ere ez ordeal.. Eskatul.. Nori?.. Or bai, aberatsak zerate emengoen aldean... Emen?.. *mixeri gofia* besterik eztago!.. Gañera emen atzefitafak gera ta ezta afitzkeoa: emen gutzako danak *begiokerak*...

Baño ametsetan bada ere ikusi ditzagun eliza ta etxe oiek guziak jasoak... Ori ametsa!.. Ezta alako esnesaltzaierik!.. Oraindik or Monsefateko basilizatxo ori bezelako elizatzu bat besterik ezdaukagu!..

Ori guzia egiña balego ere, efexa litzakela uste aldezue emengo lana? Nundik asi bear da lanean? *Umetatik?*.. Or ala uste nun nik... baño ez: umeak alde batera utzi beafean arkitzen gera; eske datoztenai ere bataioa ukatu beafean, ezkontzeko garaia arte... ta orduan naiko al dute?... Alpefik da edo okefago gurasoen mende bizi diran bitartean umeak bataiatzea: gezufezko jainkoak gurtzera beartu egiten bai dituzte etxean... Atzefitafen gofotoan azitako umeak zeñi sinistuko diote? zeñen esana egingo dute? begitartean dauzkaten atzefitafena ala gurasoena?..

Emakumeetatik asiko ote gera bada lanean? Bai zera!.. Emen emakumeak ezta eskubiderik ezertarako, ezta etxetik ateratzeko ere. Satofik bal-

din bada emen, emengo emakumeak dira egitan: beti lurpean edo etxe baztar ilunean, beti gizonen kasketaldi ta naikeri guzietara jafiak, beti zirpil txar batzuk bezelaxe baztertuak. Naita ere, ez dira asko gauza, ez etxetik ateratzeko. Gaxoai txikitatik, sei bat urte dituztelarik, oñak betiko oso baldartu, elbafitu ta ondatu egiten dizkiete. Ara nola: oiñ-erditik ezufak aushi edo beren tokitik aterata, oñak beetik atzealdera biufitu beatz-punfakin orpoa jotzen dutela jafi arteraño; gero estu-estu lotu ta ez beñ ere askatu, ez lo egiteko ere.

Ori da efukafia, ori! Nexka gaxoa beti kafaxika, iñor ufikaltzen etzaio-la (ezta bere ama ere), pauso bat ere emateko gauza ez dala beti lufean

ASMAKIZUNA



Bi lagun ta katua sutundoan daude,
Irugafen lagun bat topau al zazuke?

etzanda, etengaba jostatzen eta saltoka ibili bear luken urterik edefenetan!..

Beraz oiñez ibiltzerik ez dauka ez oinzabalean, ez orpo gañean, ez anka punfetan, baizikan oingañakin lufa ikutzen duala!.. Ori da Emakume ori naita ere nola izango da *bere buruaren jabe?*..

Gizonetatik asi bear da bada lanean, baño ez zartzaroan: orduan gortuak daude okerbideetik atera ta zuzenbidean sartzeko; gañera kristau-ikasbidea nork sartu kasko oietan?..

Mutil gazteakin asi bear da lanean. Baño garai ortan berekoiak eta afoxko utsak besterik ez dira oiek? ez dute iñungo atzefitafen kontra kas-koa berotzea baño gauza efaxagorik.

Ori alde batetik. Bestetik befiz, txikitan ala oitugabeak gero gaztetan

ez dute zeru aldera begiratzeko gogo aundirik izaten: naiko jostañu bilatzen bai dituzte lufean... Jostañu oiekin aspertzera ko befiz biotza usteldu!..

Nere Ondafabiar biotzekoak, ederki ikusten dezute noski deus gutxi dala guk emen egin dezakegun lana: dana edo ia dana Jaungoikoa berak egin bear du. Nik ez nuan ezagutzen oraindano zein beafezkoa zan otoitza anima gaxo oiek zerubidera ekartzeko. Ofegatik *ez zuen sosak, zuen otoitzak* batez ere bear ditut nik emen lan ona egin bear badet. Sosak or ere bear dituzute: zuen umeak ondo azitzeko, zuen efiko apaiz jaunai begiratzeko. Batez ere gaurko legeakin au dezute zuen eginbeafik aufenekoen: eriko apaiz jaunai al dezuenetik laguntzea. Ortan ere Irugafendafak besteren ispiñuak izan bear dezute.

Baño zuen otoitzak... afen ori ez didazute ukatu bear iñork ere. Sos bat eman ezin dezutenak ere, beti Jaungoikoaren adiskide onak baldin bazerate eta egun-egunero onuntzaldere otoitz bero-beroak bialtzen badituzute, jakin neri atsegiñik eta laguntzarik onena ematen didazutela...]

Esan batez ere zuen umeai komunio Ordaingafitik ez atzeratzeko: sartzeko danak eta beren egunetan txintxo-txintxo Jauna artzeko emen Jaungoikoa ezagutzen ez duten ume oien orde, batez ere nexka gaxo oien orde; oiek ere zerurako jaioak dirala: ia ez al duten deus egin bear oiei zeruraten laguntzeko, ia nexka oei batez ere emen oinbeste negar eginda gero betiko negar egitera inpernura joaten ofela utzi bear al dieten!..

Ai zein gogoan iduki dituan nik joan dan ilabetean Ondafabiko umeak!.. Begietan daukat, nere gelatik ikusten det *Jaizkibel* antzeko mendia eta mendi gañean eliza bat... ez Guadalupeko Ama Birjiñarena orde, gezufezko jainkoena!.. Noiz botako ditut nik ankaz gora jainko tzar oiek eta orde Ama Birjiña jafi?.. Noiz igoko ote naiz ni, or joralean Guadalupea bezelaxe, emengo, befeun nexka-mutilekin mendi ortara, gogotik «Gora Jaungoikoa! Gora Ama Birjiña!» ojuka?..

Gaurkorako aski da. Atzo asi nintzan emengo izkeran lanean: lenbiziko aldian atzo aitortu nitun amar mutil koxkor eta iru gizon, gaur befiz zazpi emakume.

Nere lantoki befi ontatik bada bialtzean dizutet euske.a gozoan nere aufeneko agufa, zeoi berai gure eliz andoko txoko ortan abesten ainbeste aldiz entzun dizutedan agufa:

Agur Jaunak,
Agur ta erdi!
Denak Jainkoak
Eiñak gera
Zuek eta

Gu ere bai:
Agur Jaunak,
Agur ta erdi!
Emen gera!..

Bai, agur: emengoak ez dute ezagutzen Jaungoiko ori: zuek eta nik bai. Alkar-alkafekin bizi gaitezen bada Jesusen Biotzean eta Ama Birjiñaren magalean.

Zuen biotz-biotzeko,

Tolosar Pedro Bautista.
Txinako Mixiolaria

IN DOMINO CONFIDO

(X'gařen salmoa)

Jaunagana dut nik ustea;
zergatik diostazue:
«Iges egizu mendira,
txori batek bezelaxe?
Oñal beren makoa teink
dadukate obendiak,
geziontzian gerturik
jafi dituzte geziak,
ixilki gezikatzeko
biotz-zuzen ta garbiak.
Jasoñak bota dituzte,
ta zuzenak zer dagike?»
Jauna eseria dago
bere jauregi sanduan,
Jaunak bere jauralkia
antxe daduka zeruan.

Txiro ta landefei bea
dagozte aren begiak,
aren betazalek tuzte
ikertzen gizon guziak,
Jaunak ikuskatzen ditu
berdin onak ta gaiztoak,
gaizkia maite duena
iguin du aren gogoak.
Jaunak erauntsiko ditu
obendien gain ikatzak;
sufre, su, aize-bufunbak
dira oien erorkiak.
Zuzena baita Jainkoa,
zuzenbidea du maite;
aren aurpegi argia
zintzoak ikusten dute.

Iraizoz-ko Polikarpo A.

IL-BERIAK

Zeruko Argia'ren arpidedun zintzo ziran auek Jaunaren besoetan betiko loak artu ditu:

Igoa'n: Josefa Leziaga. **Eibar'en:** Juan Azkargorta. **Legořeta'n:** Josefa Zaldua. **Azkoiti'an:** Leona Epelde, gure Ipolito Aba-gaiaren ama zana.

*Betiko atsedena emaiezu, Jauna. Eta betiko argiak argitu bitza.
Beude pakean. Amen.*

Ikasi!... Ikasi!

1.^a—Esan zaidak, Perutxo, aita-amak nun dira?

—Biak jun dira bada, Meza Nagusira.

Nai ba-du aitatzokin itzegin naiera,


Jun liteke Berori elizatarira.

2.^a—Baño aizak, mutiltxo, erne ta polita,

Mezara juten al da oraindire aita?

—Mezara ezta ba, jungo? Gaur igande baita.

Zergatik ez dijoaz ara Berori ta?



3.^a—Andik eztek ekartzen diru ta ondasunik;

Beritxukeri oiek utzi dizkiat nik.

—Meza santua al da ba ain gauza befia?

Erpulika ez al da beritxukeria?

4.^a—Esan zidan bai aitak lengo egunian,

Kristau aziak ere burua galtzian,

Edo gaiztoz pizti tzar egin diranian,

Ezin bizi dirala kristauen legian.